**DECRETO Nº** 1367
(P006211)

**ACUERDO:**

Udalbatzak, bi mila eta hamaikako uztailaren hogeitabederatzian, eginiko bilkuran, honako akordioa hartu zuen, A.F.A.ren 206 artikuluaren salbuespenarekin:

**Gaitzat harturik 2009PLES0003 espedientea, 2.1.02 PUIANA. Eskola Lursaila esparruaren Hiri Antolamendurako Plan Bereziari buruzkoa.**

**Honako ekintza hauek ikusirik:**

- Alkatetzak 2009ko abenduaren 9an emaniko Ebazpenaren bidez, 2.1.02.PUIANA. ESKOLA LURSAILA esparruaren Hiri Antolamendurako Plan Berezia egitea erabaki zen, Irungo Udalak eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak bultzatuta.
Dokumentua Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Orokorrari bidali zitzaion aireko zortasunei dagokienean derrigorrezko txostena egin zezan, eta aldeko txostena jaso zen 2010eko apirilaren 15ean.

-Alkatetza honek 2011ko maiatzaren 12an emaniko Ebazpenaren bidez, aipaturiko Plan Berezi hori hasieran onartzea eta jende aurreko informazio-tramitean jartzea erabaki zen, eta ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

-Plan Bereziaren helburua da Puiana esparruan *Zehaztu beharreko ekipamendu* gisa kalifikaturiko lursaila antolatzea bertan bi eskola ekipamendu eraikitzeko, eta kirol lursaila definitzea era berean.

-Betiko onarpenerako dokumentua idatzi da eta horrekin bete da hasierako onarpen erabakian jarritako baldintza, zortasun

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día veintinueve de julio de dos mil once, adoptó, con la salvedad del Art. 206 del R.O.F., el siguiente acuerdo:

**En relación con el expediente nº 2009PLES0003 relativo al Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito 2.1.02 PUIANA.Parcela Escolar.**

**Resultando los siguientes hechos:**

-Mediante Resolución de la Alcadía de fecha 9 de diciembre de 2009, se acordó proceder a la formulación del Plan Especial de Ordenación urbana del ámbito 2.1.02.PUIANA. PARCELA ESCOLAR, promovido por el Ayuntamiento de Irun y el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.
Se remitió el documento a la Dirección General de Aviación Civil para la emisión del preceptivo informe en lo que a servidumbres aeronáuticas se refiere, obteniéndose informe favorable con fecha 15 de abril de 2010.

-Mediante Resolución de la Alcaldía de fecha 12 de mayo de 2011, se acordó aprobar inicialmente y someter a información pública el Plan Especial de referencia, sin que se hayan presentado alegaciones

-El objeto del Plan Especial es ordenar la parcela calificada de *Equipamiento a definir* del ámbito Puiana, para la construcción de dos equipamientos escolares. Así como la definición de una parcela deportiva.

-Se ha redactado un documento para la aprobación definitiva que cumplimenta el condicionado establecido en el acuerdo de aprobación inicial, sobre condiciones de cierre

elektrikoei dagokienean lursaila ixteko baldintzei begira.
Era berean, Abiazio Zibilaren aldeko iritzia jaso duen Dokumentuaren baldintzetan mantendu egin dira eraikuntza kotak.

de la parcela en relación con las servidumbres eléctricas.
Asimismo se mantienen las cotas de edificación en los términos que el Documento de formulación fue informado favorablemente por Aviación Civil.

**Honako argudio hauek gogoan izanik:**

**Considerando los siguientes argumentos:**

-Aipaturiko lursail horren garapena Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak bultzatu du zati batean, bertan haur hezkuntzako eskola eraikitzeko asmoz.
Era berean, Irungo Udalaren Hezkuntza Sailak bat egin du Eusko Jaurlaritzaren ekimen horrekin eta lursail berean beste eraikuntza bat egitea planteatzen du 0-2 urte arteko haurrak eskolatzeko.

-El desarrollo de la citada parcela, viene promovida por una parte, por el Departamento de Educación de Gobierno Vasco con la intención de edificar una escuela de educación infantil.
A su vez, el Departamento de Educación del Ayuntamiento de Irun, se suma a la iniciativa de Gobierno Vasco y plantea otra edificación en la misma parcela, destinada a escolarización de niños de entre 0-2 años.

-Eremu horretan gaur egun indarrean dagoen plangintzak, Puianako Plan Partziala alegia, Udalbatzaren Osoko Bilkurak 1988ko maiatzaren 27an onartua eta 1995eko azaroaren 29an aldatua eta Plan Orokorrean jasoa, adierazten du *bere garaian Udalak erabakiko duela ekipamenduaren betiko xedea, baina Ekipamendu Publikoaren izaera mantentzeko obligazioarekin beti ere.*

-El planeamiento actualmente vigente en la zona, Plan Parcial de Puiana, aprobado por el Ayuntamiento Pleno en sesión de 27 de mayo de 1988, modificado con fecha 29 de noviembre de 1995 e incorporado al Plan General, recoge que el *destino definitivo del equipamiento se decidirá en su momento por el Ayuntamiento, viniendo obligado a mantener siempre el carácter de Equipamiento Público.*

-Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 70. artikuluak xedaturikoaren arabera, hiri antolamendurako plan bereziek plan orokorraren egitura mailako antolamendua garatu ahal izango dute antolamendu xehearen bidez.

-De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 70 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, los planes especiales de ordenación urbana podrán desarrollar la ordenación estructural del plan general mediante el establecimiento de la ordenación pormenorizada.

-Plan Bereziak betetzen du, beharreko zehaztapen eta dokumentazioari dagokienean, duen berariazko helburua, arestian aipaturiko Lege horren 69. artikuluan xedaturikoaren arabera.

-El Plan Especial se ajusta en cuanto a sus determinaciones y documentación necesaria a lo que constituye su objeto especifico, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 69 de la citada Ley.

-Toki sistemen hornidurarako esku hartzea da, 2/2006 Legearen 139. artikuluak xedaturikoaren arabera. Zorua udalaren jabetzakoa da, eta horrenbestez, ez da desjabetze sistemarik erabili behar.
Esku hartze publikoaren esparruari dagokio

-Se trata de una actuación de dotación de sistemas locales, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 139 de la Ley 2/2006, cuyo suelo es de propiedad municipal por lo que no se requiere el mecanismo de la expropiación

eta Planean aurreikusitako urbanizazio eta eraikuntza obrak hartzen ditu.

-Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97. artikuluak adierazten du ondorio horietarako plan partzialetan zehaztutakoaren arabera egin, tramitatu eta onartuko direla plan bereziak.

Jende aurrean egoteko epea igaro eta beharreko txostenak egin ondoren, bidezkoa da betiko onarpena ematea.

- Espedientea aztertu zen Hirigintza, Ingurumena, Mugikortasuna, Bide Publikoa, Obrak eta Udaltzaingoaren Batzordeak 2011ko uztailaren 22an egin zuen bilkuran.

**Espedientean jasotako dokumentazioa ikusirik**

**Udal Batzarrak zera erabaki du:**

***1.- Betiko onartzea 2.1.02 PUIANA. ESKOLA LURSAILA esparruaren HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIA.***

***2.- Aurreko erabakian aipatzen den Plan Berezia Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, argitaratu aurretik Hirigintzako Plangintzaren Administrazio Erregistroan gordailutzeko.***

***Plana indarrean jartzeko, eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 88. artikuluan aurreikusten diren ondorioak izan ditzan, lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da behin betiko onetsitako erabakiaren eta hirigintzako arauen eduki osoa, adieraziz aipatutako hirigintzako erregistro horretan gordailutu dela plan hori.***

***Behin betiko onesteko erabakia, gainera, dagokion lurralde historikoko egunkari hedatuene(t)an argitaratuko da.***

Pertenece a la esfera de actuación pública y comprende las obras de urbanización y edificación previstas en el Plan.

-El articulo 97 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, establece que los planes especiales se formularan, tramitarán y aprobarán de acuerdo con lo establecido al efecto para los planes parciales.

Habiendo transcurrido el plazo de información pública y emitidos los informes correspondientes, procede otorgar la aprobación definitiva.

-Examinado el expediente en la sesión de la Comisión de Urbanismo, Medio Ambiente, Movilidad, Vía Pública, Obras y Policía Local de fecha 22 de julio de 2011

**A la vista de la documentación obrante en el expediente**

**El Pleno de la Corporación acuerda:**

***1º.-Aprobar definitivamente el PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA en el ámbito 2.1.02 PUIANA.PARCELA ESCOLAR.***

***2º.- Remitir el Plan Especial a que se refiere el acuerdo anterior a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro administrativo de planeamiento urbanístico con carácter previo a su publicación.***

***A los efectos de la entrada en vigor del plan y para la producción de los efectos previstos en el articulo 88 de la Ley 2/2006 , de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, se publicará en el boletín oficial del territorio histórico el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva y de las normas urbanísticas, con indicación de haberse producido el depósito del correspondiente plan urbanístico en el citado registro.***

Ayuntamiento | Udala
IDAZKARITZA, ZZ. JJ. ETA KONTRATAZIOA
SECRETARÍA, SS. JJ. Y CONTRATACIÓN
irun
www.irun.org

*3.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Beraren aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean, edo bestela, Euskadiko Justizi Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean zuzenean inpugnatu daiteke, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean, bidezkotzat jo litekeen beste edozein errekurtsoz gainera.*

*El acuerdo de aprobación definitiva se publicará además en el diario o diarios de mayor difusión en el territorio histórico correspondiente.*

*3º.-El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa. Contra el mismo podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro recurso que considere pertinente.*

**DEKRETUA:** Aurreko erabakian agindutako guztia beteko zaie interesatuei.

**DECRETO**: Se dará cumplimiento a los interesados de cuanto ordena el acuerdo anterior.

Hiri honetako Udal Txit Goreneko Alkate-Lehendakari jaunak agintzen eta sinatzen du, Irunen bi mila eta hamaika abuztuaren 1an.

Lo manda y firma el Señor Alcalde-Presidente del Excmo. Ayuntamiento de esta Ciudad de Irun, a 1 de agosto de dos mil once, certifico

ALKATEA/EL ALCALDE,

IDAZKARIA/LA SECRETARIA

**DILIJENTZIA:** Data honetan betetzen da agindutakoa, ziurtatzen dut.

**DILIGENCIA.-** Con esta fecha se cumple lo ordenado, certifico